



RASFF-EKO ALERTAK ETA
JAKINARAZPENAK
2006KO 3. LAUHILEKOA


elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

2006. urteko hirugarren lauhilekoan, Europako Informazio Azkarreko Sistemak (RASFF) guztira **861 alerten eta jakinarazpen berri** eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura-iturriei dagozkien portzentajeak hurrengoak dira:

Kutsadura-iturriak	Portzentajea
Mikotoxinak / biotoxinak	%35
Kutsadura kimikoa	%19
Kutsadura biologikoa	%19
Metal astunak	%8
Pestiziden hondakinak	%5
OGMak	% 14



Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kutsadura **Aflatoxinek** eragin dute (kasuen **%85**) eta, horrelakoetan, **kakahueteek** kutsaduren **%28** eragin dute. Bestalde, kakahueteak **Txinatik** eta **Argentinatik** etorri dira (kasuen **%17** eta **%15**, hurrenez hurren). Bigarren produkturik garrantzitsuena **pistatxoa** izan da. Hurrenez hurren, aflatoxinek eragindako kutsaduren **%26** eragin ditu, eta **Iranetik** etorri dira (**%61**).


Kutsadura biologikoei dagokienez, **Salmonella sp.**k kutsaduren **%37.5** eragin ditu. Kasuen **%13** **S.typhimurium** espezieak eragin ditu, eta txerriak kasuen **%87.5**tan hartu du parte. Halaber, kasuen **%7** **S.enteritidis** espezieak eragin ditu, eta **oilaskoak** zein **arrautzak** kasuen **%100**an hartu dute parte. **S.enteritidis** espezieek eragindako kasuen **%100**ean, **Europatik** etorri dira eta **S.typhimuriumaren** kasuan, **%86a**. **Salmonella sp.**k eragindako kasuei dagokienez, **haragiak** eta **berorren eratorriek** kasuen **%39** eragin dituzte, eta kasuen **%100** **Europatik** etorri dira.

Kutsadura kimikoari dagokionez, **Koloragarriak eta Gehigarriak** izan dira eragile nagusiak (kasuen %37), eta gehigarriek kasuen %64,5 eragin dituzte. Horrelakoetan, **zukuak eta frutazko karameluak** izan dira garrantzitsuenak (%40), eta horien %38 **Asiakoak** izan dira. Bestalde, **Benzopirenoak** izan dira kutsadura kimikoen eragileak (kasuen %18.5); arlo horretan **arraina koipean edo ketu** izan dira eragile zuzenak (kasuen %45), afrikakoak % 43an eta asiakoak % 29an.

Metal astunak ere nabarmendu behar ditugu, **merkurioa** bereziki. Izan ere, horiek eragindako kutsadura kasuak areagotu egin dira nabarmen aurreko lauhilekotik hona. Gaur egun, metal astunek eragindako jakinarazpenak %48.5 izan dira, eta **marrazoak** eta **ezpata-arrainak** kasuen %94 eragin dituzte. Horien jatorria oso bestelakoa izan da.

Mikotoxinak/Biotoxinak	299	Aflatoxinak	255 (85%)	kakahueteak	71(28 %)	Txina	12 (17%)
						Argentina	11(15%)
				pistatxoak	67 (26%)	Iran	41 (61%)
Kutsadura biologikoa	162	Salmonella sp.	61 (37,5 %)				
		<i>S. enteritidis</i>	4 (6,5%)	arrautza, oilasko	4 (100%)	Europa	4 (100%)
		<i>S. typhimurium</i>	8 (13%)	txerria	7 (87,5%)	Europa	6 (86%)
		<i>Salmonella sp.</i>	49 (80%)	haragi eta eratorriak	19 (39%)	Europa	19 (100%)
Kutsadura kimikoa	168	koloragarriak eta gehigarriak	62 (37%)				
		gehigarriak	40(64,5%)	fruta zukuak goxokiak	16 (40%)	Asia	6 (38%)
		Benzopirenos / HAP	31 (50%)	arraina koipean edo ketuak	14 (45%)	Afrika	6 (43%)
				marrazoa, ezpatarraina	31 (94%)	Asia	4 (29%)
Metal astunak	68	Merkurioa	33(48,5%)			Europa	18 (58 %)


Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdea hurrengoa izan da:



Asiari dagokionez, kutsaduren % **20.5ek Iranen** izan dute jatorria, ondoren **Txinan %18k. Europari** dagokionez, jakinarazpen gehien eragin dituzten herrialdeen artean **Turkia (%36.5)** eta **Italia (% 9)** izan dira.

Azkenik, Amerikako kontinentean, **AEB** nabarmendu behar dugu % **78**arekin, OGMak direla eta.

Azkenik, Europako Erkidegoaren barruko jakinarazpenen portzentajea hurrengoa izan zen:



AURREKO LAUHILEKOAREKIN KONPARATIBOA

Aurreko lauhilekoarekin konparatuz, hurrengoa aipa daiteke:

- OGMak agertu dira kutsagarri moduan, 120 jakinarazpenekin, % 99 arroza izanda produktua eta EEBB jatorrikoa.
- Pistatxoaren jeitsiera aflatoxinez kutsaturiko produktu bezala, berarekin kakahuetea, urra eta pikua agertuz.
- Benzopirenoen agerpena, kutsadura kimikoaren barne, bigarren kutsadura iturria bezala, sulfitoak baztertuz. Hauekin kutsaturiko arraina koipean edo ketua izanda.
- Berriro ere, merkurioaren handitzea, marrazoa eta ezpatarraina produktu kutsatuak direlarik.